

4/2020 AKTA  
NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEJUEK FEDERAZIOAREN BATZORDE BETEARAZLEAK  
EKAINAREN 9an EGINDAKO BILKURA

**BERTARATUAK:**

**LEHENDAKARIA:**

Juan Carlos Castillo Ezpeleta jn., Azkoiengo alkatea

**1. LEHENDAKARIORDEA:**

Mario Fabo Calero jn., Martzillako alkatea

**2. LEHENDAKARIORDEA:**

Ander Oroz Casimiro jn., Antsoaingo alkatea

**BATZORDEKIDEAK:**

Aitor Larraza Carrera jn., Irurtzungo alkatea  
Oihan Mendo Goñi jn., Garesko alkatea  
Jesús Esparza Iriarte jn., Kasedako alkatea  
M<sup>a</sup> Carmen Segura Moreno and., Alesbesko alkatea  
Jesús María Arrizubieta Astiz jn., Tafallako alkatea  
Raúl Maiza González jn., Berriozarko alkatea  
Óscar Bea Trincado jn., Cintruenigoko alkatea  
David Alvarez Yanguas jn., Castejongo alkatea.  
Enrique Maya Miranda jn., Iruñeko alkatea.  
Alejandro Toquero Gil jn., Tuterako alkatea.  
Pedro José Soto Eguren jn., Gesalazko alkatea.  
Manuel Romero Pardo jn., Aranguren Ibarreko alkatea  
Cristina Recalde Vallejo and., Artikako Kontzejuko burua  
Sabina García Olmeda and., Izarbeibarko  
Mankomunitateko lehendakaria  
Fernando Ferrer Molina jn., Erriberako Mankomunitateko  
lehendakaria  
Esther Lacasta Pérez-Illarbe and., Basaburuako alkatea  
Itziar Semberoiz Garralda and., Espartza Zaraitzuko  
alkatea  
Ángel Martín Unzue Ayanz jn., Agoizko Alkatea  
David Oroz Alonso jn., Urdiaingo alkatea

**Ezin etorria adierazi dute:**

Mikel Landabere Villanueva jn., Aurizberriko Kontzejuko  
burua  
Mikel Zabaleta Aramendía jn., Leitzako alkatea  
Yolanda González García and., Vianako alkatea.

**IDAZKARIA:**

Berta Enrique Cornago and.

Bi mila eta hogeiko ekainaren bederatzian, goizeko hamabietan, aldamenean adierazitakoak bildu dira era telematikoan Zoom aplikazioaren bidez, Batzorde Betearazleko kideak baitira. Bilkuraren buru Juan Carlos Castillo Ezpeleta jn. aritu da, eta idazkari, berriz, Berta Enrique Cornago and. Hona hemen

**GAI-ZERREDA**

- 1<sup>o</sup>.- Martxoaren 10eko ohiko bilkuraren aktaren eta maiatzaren 7ko bilkura bereziaren aktaren berri ematea eta horiek onestea.
- 2<sup>o</sup>.- Batzorde eta Kontseilu sektorialeiei buruzko informazioa.
- 3<sup>o</sup>.- NUKFri atxikitze eskakera.
- 4<sup>o</sup>.- Larrialdiko laguntzarako partidaren eta NUKFren oporrak bakean programarako aurreikusitako funtsen esleipena erabakitze proposamena.
- 5<sup>o</sup>.- 25 milioiko funts berezia.
- 6<sup>o</sup>.- Beste gai batzuk.
- 7<sup>o</sup>.- Lehendakariaren informazioa.
- 8<sup>o</sup>.- Galde-eskeak.

## **1. PUNTUA. Aurreko bilkuretako aktak onestea**

Gai-zerrendari heldu baino lehen, lehendakariak adierazi du osasun krisiagatik NUKFren jarduna gai horri nagusiki bideratzen ari dela eta, horregatik, jarduketan programaren zenbait gai atzeratu behar izan direla. Osasun krisia dela eta, ezingo da ekaineko Batzar Nagusi berezia egin. Aurreko legegaldian bezala, batzar horrek urteko lehenengo sei hilekoan egindako jarduketan berri ematea eta kontuak onestea du helburu.

Lehendakariak azaldu du Batzorde Betearazlearen hurrengo ohiko bilkura irailean izango dela aurreikusitako datan. Horretaz gain, beharrezkoa ikusiz gero, bilkura berezia deitu ahalko dela zehaztu du.

Ondoren, gai-zerrendaren lehenengo gaiari heldu dio, akten onespenerari.

Aurreko bilkuren akten kopia igorrita deialdiarekin batera, aldeztu aurretik irakurri beharrik gabe, lehendakariak martxoaren 10eko ohiko bilkuran eta maiatzaren 7ko bilkura berezian egondako Batzorde Betearazleko kideren batek oharren bat egin nahi ote duen galdetu du.

Inork ez du oharrik egin; horrenbestez,

### **ERABAKI DA:**

2020ko martxoaren 10ean eta maiatzaren 7an egin bilkuren aktak onestea.

## **2. PUNTUA. Batzorde eta kontseilu sektorialeko buruzko informazioa.**

Lehendakariak egindako Batzorde eta Kontseiluen berri eman du. Era berean, osasun krisiarekin lotuta deitu dituzten Batzorde eta bilera zehatzen berri eman du. Federazioa horietan guztietan egoten saiatu da.

- **Nafarroako Adingabearen Kontseilua**, 2020/03/31.
- **FEMPen Lurralde Kontseilua**, 2020/04/24.
- **Toki Araubidearen Foru Batzordea**, 2020/04/30, Hondakinen Funtsa sortzen duen Foru Dekretuari aurkako txostena eman zitzaion.
- **Nafarroako Turismo Kontseilua**, 2020/04/30.
- **Despopulazioaren kontra borrokatzeko Batzordea**, 2020/05/05.
- **Nafarroako Osasun Kontseilua**, 2020/05/05.
- **Vianako Printzea Erakundea - Kultura Zuzendaritza Nagusia eta Nafarroako udalerriak koordinatzeko Forua**, 2020/05/07.
- **Despopulazioaren kontra borrokatzeko Batzordea**, 2020/05/11.
- **Lurraldearen Antolamenduko Batzordea**, 2020/05/14.
- **NILSaren Administrazio Kontseilua**. 2020/05/18.

- **Nafarroako Gardentasun Kontseilua**, 2020/05/18, zain zeuden erreklamazioak tramitatu ziren.
- **Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Kontseilua**, 2020/05/27, Nafarroa Suspertu planaren berri eman zen.
- **Vianako Printzea Erakundea - Kultura Zuzendaritza Nagusia eta Nafarroako udalerriak koordinatzeko Forua**, 2020/05/27. Departamentuak Nafarroa Suspertu planaren proposamena igorri digu ekarpenak egiteko.
- **Nafarroako Berdintasunerako Kontseilua**, 2020/05/27.
- **Emakumeen kontrako Indarkeriari Arreta Ematea eta Aurrea Hartzea Eraginkortasunez Koordinatzeko Erakunde arteko Akordioaren Batzorde Iraunkorra**, 2020/06/02.
- **Nafarroako Euskararen Kontseilua**, 2020/06/02.
- **Memoria Historikoaren arloan Koordinatzeko Batzordea**, 2020/06/04. Batzorde honen ordezkariak adierazi zuen legealdiko lehenengo bilera izan zela. Egun horretaraino egindako jarduketak berrikusi zituzten eta memoriaren politiken alorrean lanean jarraitzeko konpromisoa adierazi zuten. NUKFk bi gai eraman zituen: batetik, dirulaguntza deialdietan ondare immateriala berreskuratzeko laguntzak barne hartzea baloratzea. Bestetik, Turismoko Planean erkidego osoko memoria tokiak barne hartzea horiek aitortuak izan edo ez.
- **Nafarroako Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorra**. Nafarroako Eskola Kontseiluaren ordezkariak honako dokumentuak igorri zaizkie:
  - Ikastetxeetara berriz itzultzeko planaren zirriborroa.
  - Nafarroako Kontseiluko Nafarroa Suspertu 2020-23 planaren oinarriak

Covid 19aren krisiarekin lotuta sortutako batzorde bereziak:

- **Trantsizioa kudeatzeko Adituen Batzordea**, 2020/04/29.
- **Merkataritzarako Segurtasun Plana**, 2020/04/29.
- **Kirolean Deseskalatzea kudeatzeko Batzordea**, 2020/05/13.
- **Egoitza-zentro Soziosanitarioetan Osasun Arreta Antolatzeko Unitatea**, 2020/05/13 eta 2020/06/10.
- **Tokiko merkataritza dinamizatzeko plana**, 2020/05/13.
- **Trantsizioa kudeatzeko Adituen Batzordea**, 2020/05/15.
- **Turismorako Ekintza Plana COVID-19**, 2020/05/18.
- **Kirolean Deseskalatzea kudeatzeko Batzordea**, 2020/05/20.
- **Trantsizioa kudeatzeko Adituen Batzordea**, 2020/05/22.
- **Turismorako Ekintza Plana COVID-19**, 2020/05/22.
- **Diziplinarteko mahaia Covid19 eta Haurtzarora-Nerabezaroa**, 2020/05/28.
- **Kirolean Deseskalatzea kudeatzeko Batzordea**, 2020/05/28.
- **Kirolean Deseskalatzea kudeatzeko Batzordea**, 2020/06/3.

**ERABAKI DA:**

Horretaz jabetzea.

### **3. PUNTUA.-NUKFri atxikitzeako eskaerak.**

Mendivilgo Kontzejuak NUKFri atxikitzeako egindako eskaeraren berri eman da.

#### **ERABAKI DA:**

Entitate horren eskaera aintzat hartzea. Horrenbestez, entitatea NUKFko kide izatera igaroko da bilkuraren egunetik aurrerako ondorioekin.

### **4. PUNTUA.- Larrialdiko laguntzarako partidaren eta NUKFren oporrak bakean programarako aurreikusitako funtsen esleipena erabakitzeako proposamena.**

NUKFren aurrekontuetako 10.000 euroko larrialdiko laguntzarako partidaren eta NUKFren oporrak bakean programarako aurreikusitako funtsen esleipena erabakitzeako proposamenaren berri eman du lehendakariak.

Larrialdiko laguntzarako partidari helduta, proposamenean adierazten den baldintzei jarraiki bi eskaera egon dira: bata Zaporeak erakundearena eta, bestea, UNRWA erakundearena. Zaporeak erakundeari 2.500 euro eta UNRWA erakundeari 7.500 esleitzea proposatu da.

Oporrak bakean programari dagokionez berriz, bilkuran azaldu dutenez, joan den legealdian NUKFk Nafarroako Saharar Ordezkaritzarekin lankidetzat hitzarmena sinatu zuen. Hitzarmen horretan, 2.000 euroko partida aurreikusita dago udako hilabeteetan Foru Erkidegoan hainbat haur sahararri abegi egitea xede duen programa horretarako.

Aurten, ezingo da bidaia hori egin baina udalekuak antolatu dituzte eta RASD entitateak finantzazioa eskatu dio federazioari haur horiek elikatzeko. Horregatik, proposamena da ANAS GKEari 2.000 euroko ekarpena mantentzea ahoz aurreratu duten proiektua aurkeztu ondoren.

#### **ERABAKI DA:**

Larrialdiko laguntzarako partidaren eta oporrak bakean programaren aurrekontu esleipena onestea akta honi atxikirik doan proposamenean adierazitako baldintzei jarraiki.

### **5. PUNTUA.- 25 milioiko funts berezia.**

Lehendakariak 25 milioiko funts bereziaren berri eman du; Toki Administrazioaren Departamentua funts horren proiektu-zirriborroan lanean ari da.

Adierazi duenez, departamentu horrek helarazi dion informazioaren arabera, banaketarako sistema arina bilatzea da helburua eta, horretarako, talde tekniko bat osatu dute. Bertan, zenbait kontu-hartzailek parte hartu dute konpentsatu beharreko gastu zehatzak identifikatzeko asmoz. Hori baino lehen,

departamentuak inkesta bat egin zuen pandemiaren ondorioak ezagutzeko.

Idazkari nagusiak funtsa onesteko aurreikusten diren datak azaldu ditu.

Ondoren, Batzorde Betearazleko kideek gaiaren inguruko ekarpenak egiteko tarte zabaldu da.

Alvarez jaunak, Castejongo alkateak, laguntza horiek jasotzeko beharra berehalakoa dela eta lehenbailehen iritsi beharko lirakeela adierazi du. Halaber, ezohiko gastuei erantzutea eta zerbitzuak ematen dituzten enpresak berriro abiatzea lehentasunezkoa dela uste du. Horretaz gain, gastu handien ehuneko ehuna estali beharra dagoela adierazi du eta beste gai batzuei, Inbertsio Planari esaterako, aurrerago heldu ahal zaiela.

Fabo jaunak, Martzillako alkateak, esan du ongi legokeela aurrea hartzea eta proposamen itxi bat egon baino lehen proposamenak egitea.

Lehendakariak adierazi du Federazioak egindako proposamenak Inbertsioen Plan handiago bat aipatzen duela eta, horregatik, 25 milioiko funtsa ezin dela horretarako erabili.

Oroz jaunak, Antsoingo alkateak, funtsa handitu ahal dela zehaztu du. Halaber, bidea ongi hasi dutela uste du udalei datuak eskatuz diru-sarreraren murriztea eta gastuen handitzea ezagutzeko. Suspertzeko neurriei buruz ere hitz egin beharra dagoela zehaztu du. Garrantzitsuena gauzak ongi egitea dela esan du.

Romero jauna, Aranguren Ibarreko alkatea, ados dago likidezia edukitzea presazkoa dela adierazi dutenekin; zain dauden ordainketa ugari dagoela adierazi du eta Funtsa ez dela gauza guztietarako iristen. Horregatik uste du ezin dela suspertzeko erabili. Kalkuluak egin ditu funtsa nahikoa ez dela agerian utziz. Zehaztu duenez, bidezkoak diren formulak bilatu behar dira, zerbitzu gutxi ematen dituzten entitate txikientzat ere bai.

Oroz jaunak, Antsoingo alkateak, altxortegiaren inguruko tentsioei buruz datuek islatzen dutenari heldu dio.

Cabases jaunak, NUKFren teknikariak, bilkurara konektatzeko ezintasuna izan duen Landabere jaunaren izenean adierazi du kontzejuak kontuan hartu beharra dagoela.

#### **ERABAKI DA:**

Horretaz jabetzea.

#### **6. PUNTUA.- Beste gai batzuk.**

Batetik, Batzorde Betearazleak onetsitako NUKFren langileen lan-egutegia aldatzea proposatu da. Aldaketa honakoa da: sanferminak ospatuko ez direnez, langileek proposatu dute uztailaren 7, 8 eta 9a

lan egitea jai egun gisa mantendu beharrean. Era berean, hurrengo egunetan aurreikusita zegoen ordutegi murriztua egin beharrean, ohiko ordutegia mantentzea ere proposatu dute.

#### **ERABAKI DA:**

Lan-egutegia azaldutako baldintzetan aldatzea.

Bigarrenik, Iruñerriko Mankomunitateak igorritako idatziaren berri eman dute. Bertan, Nafarroako Garraio Publikoa mantentzeko funts berezi baten sorrera eska dezala adierazi dio NUKFri. Horri loturik lehendakariak azaldu du mankomunitatearen lehendakariarekin eta lehendakariordearekin bildu zela eta bilkuran osasun krisiak garraioan izandako ondorioei aurre egiteko beharra ikusi zutela.

Lehendakariak zehaztu du FEMPeK egindako proposamenak garraiorako funts berezi bat aurreikusten duela baina zalantza du funts hori Nafarroarako balio ote duen.

Romero jaunak, Aranguren Ibarreko alkateak, Europatik etorritako partida guztiak Madrilen gelditzen direla adierazi du eta Gobernuari eskatu beharko litzaiokeela etorriko den partida kuantifikatzea eta Nafarroako entitateak kontuan hartzea.

#### **ERABAKI DA:**

Horretaz jabetzea.

Hirugarrenik, lehendakariak herriko jaiei, igerilekuei eta ludotekei buruz Nafarroako Gobernuarekin egindako akordioaren berri eman du.

Akordio hori hartzeko testuingurua eta prozesua azaldu ditu. Azaldu duenez, hasiera batean Gobernuari Osasuneko Foru Agindu bat onets zezala eskatu zitzaion. Azkenik, akordio proposamen bat egitea erabaki zuten eta osasuneko arrazoiak gehiago azpimarratzeko eskatu zitzairen. Prozesuaren amaieran, proposamen hori Batzorde Betearazlearen iritzira jarri zuten.

Romero jaunak hitza hartu du igerilekuen gaiari helduta. Uste du egungo baldintzetan oso zaila dela igerilekuak irekitzea eta adierazi du normaltasun berriko baldintzei buruzko informazioa ahalik eta lasterren eduki behar dutela irekiko dituzten ala ez erabakitzeko.

Akordioari helduta dio gomendio izaera duela eta udal bakoitzak erabakitzen duela.

Lehendakariak zehaztu du, asmoa izan dela alkateek hartutako erabakiei babes ematea.

Mendo jaunak, Garesko alkateak, eskaera egin du normaltasun berrian igerilekuek izango dituzten arauak eskatzeko.

Fabo jaunak, Martzillako alkateak, esan du arazoa Foru Agindu batek konpontzen ez badu, gomendio batek nekez konponduko duela.

Lehendakariak zehaztu du garrantzitsuena zera dela, egungo egoera aldatzen ez bada, jairik ez dela egon behar ulertzea eta denak ideia horrekin bat egotea.

#### **ERABAKI DA:**

Horretaz jabetzea.

### **7. PUNTUA.- Presidentearen informazioa**

Lehendakariak honako gaiak jakitera eman ditu:

- Toki Administrazioaren Zuzendaritza Nagusiarekin egindako aldizkako bilerak.
- Maiatzaren 15ean egindako bilera Nafarroako Gobernuko Lehendakariari Ekonomia eta Gizartea Suspertzeko Planaren proposamenak jasotzen dituen dokumentua emateko. Zenbait departamentutatik (Lurraldearen Kohesioa, Kultura, Erakunde arteko harremanak eta Berdintasuneko departamentutatik) proposamen zehatzak igorri dizkigutela adierazi du eta Federazioak dokumentuan jasotzen den proposamena behin eta berriro aipatu diela.
- Maiatzaren 27an abelburu basatiei buruz Landa Garapenerako Kontseilariarekin egindako bilera. Bilera horretara Fabo jauna, Martzillako alkatea, joan zen. Fabo jaunak azaldu duenez, bilera abelburu basatien abeltzainekin izan zen eta laguntza batzuk jasoko dituztela adierazi zitzaion. Laguntza horiek alegazio fasean daude.
- Maiatzaren 28an Berdintasunaren aldeko Toki itunak birpentsatzeko Berdintasuneko Departamentuarekin izandako bilera.
- Toki entitateak NUKFn sortuko den 2030eko Agendarako Toki Entitateen Sareari atxikitzeak aukeraren berri eman zuten.
- Maiatzaren 8an Turismoaren Zuzendari Nagusiarekin egindako bilera autokarabanentzako zenbait udal aparkalekuetan dauden arazoenguz inguruan hitz egiteko.
- 0-3ko eskolen plataformaren ordezkariarekin egiten den bilera NUKFren atarian egindako protestaren ondoren. Lehendakariak zehaztu duenez, ziklo horretako langileak lanera itzultzea da lortu nahi dutena.
- Tramitatzeak zain dauden zenbait xedapen arauemailerenguz inguruko informazioa: Gaur adinekoentzako zentroak eta egoitzak baimentzeko foru dekretu-proiektua Nafarroako Gizarte Ongizatearen Kontseilura eramango dute. Dekretu-proiektu hori Batzordeko kide guztiei helaraziko zaiela zehaztu du lehendakariak, nahi duenak ekarpenak egin ditzan. Ziurrenik, uztailearen erdialdean, Foru Batzordearen bilera egonen dela esan du. Bestalde, Klima Aldaketari buruzko Foru Lege-proiektua jendaurrean jarri dela jakinarazi du.

#### **ERABAKI DA:**

Horretaz jabetzea.

## **8. PUNTUA- Galde-eskeak.**

Alvarez jaunak, Castejongo alkateak, adinekoentzako zentroak baimentzeari buruzko dekretu-proiektua igorri diezaioten eskatu du. 0-3ko eskolen gaiaren inguruan esan du Toki Administrazioen Berrantolaketa zain dagoela aprobetxatuz, hezkuntza tarte hori hezkuntza alorraren barne sartu beharko litzatekeela eta Gobernuak hartu beharko lukeela horren ardura.

Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, lehendakari jaunak bilkura amaitutzat eman du, goiburuan aipatzen den eguneko eguerdiko 14:00ak direnean. Idazkari naizen honek honako akta idatzi eta horren fede ematen dut, eta presidentearekin sinatu dut.

LEHENDAKARIAREN ONIRITZIA,

IDAZKARIA,

Juan Carlos Castillo Ezpeleta jn.

Berta Enrique Cornago and.